



ADOS Eusko Jaurlaritzak sortutako Aholku Batzorde bat da, euskal erakundeen eta Euskadiko Komunitate islamikoen arteko lankidetzak sustatzeko sortua. 2018ko apirilaren 14an eratu zen. Orduetik, urtean gutxienez bost aldiz bildu da. Batzorde horretan euskal erakunde guztiek eta komunitate islamikoetako kideek parte hartzen dute. Bileretan bizikidetzak sustatzeko lan egiten da, eta helburua da Euskadiko komunitate islamikoen arazoei irtenbideak bilatzea.

EUSKADIKO KOMUNITATE MUSULMANARI BURUZKO DOKUMENTALA ETB2N

ADOS Batzordeak sustatu du eta irailaren 29an emango da

ADOS Batzordeak urteko lan-plan bat du. Jarduera-ardatzetako bat Euskadiko errealtate musulmanaren ezagutza eta komunikazio handiagoa sustatzea da. Zehazki, eta 2022rako aurreikusitako ekimenen artean, Euskadiko komunitate musulmaneko pertsonen testigantzetan oinarritutako dokumental bat bultzatzea aurreikusten da, euskal gizartean integratzeko eta elkarbizitzeko bizi-penak eta esperientzien isla izan daitezen.

Proiektu hori gauzatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak akordio bat egin zuen joan den udaberrian ETBekin. Prozesua amaitu da. Horrela, irailaren 29an, osteguna, 22:30ean, 'Aquí y Ahora' programaren barruan, ETB2n eta eitb.eus-en izango da ikusgai dokumentala, "Komunitate musulmana Euskadin" izenburupean.

Euskadiranzko immigrazioak komunitate musulmana ekarri du, gehienbat Magrebetik datorrena, baina baita Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta Pakistan bezalako beste herrialde batzuetatik ere. Euskal gizartean presentzia handiena duten migratzaileen taldea osatzen dute musulmanek. Pertsona horiei Islamera bihurtu diren autokto- noak ere batu zaizkie.

Dokumentalaren helburu nagusia komunitate honen errealtatera eta aniztasunera hurbiltzea da. Horrez gain, ikus-entzunezko honi esker, ADOS Batzordearen helburuen eta jarduera batzuen azalpen laburra ematen da.

Ordubeteko film dokumental hau bere bizitzari eta euskal gizartean duen integrazioari buruz Euskadin komunitate musulmana osatzen duten 15 pertsonen eskaintzen dituzten testigantzetan oinarrituta eraikitzen da.

Jatorri eta profil desberdinetako musulmanak dira: imamak, Islamera bihurtuak, adin desberdinetako gizon eta emakumeak, Euskadin jaiotako edo hazitako seme-alabak dituzten gurasoak, profesional finkatuak edo orain hasten diren gazteak. Haien bizitza-historiak ezagutuko ditugu, haien zailtasunekin, gaitzitate-prozesuekin eta gogobetetzeekin.

ADOS Batzordeak espero du dokumental honek gure kultura- eta erlijio-aniztasuna hurbiltzea eta ezagutzea erraztuko duela. Era berean, aniztasunaren errespetuan eta aitortzean oinarritutako bizikidetzaren balioak hausnartzeko eta sustatzeko balio behar du.

GAZTEEN ARTEAN ANIZTASUNARI ETA BIZIKIDETZARI BURUZKO PROIEKTU PILOTUA

ADOS Batzordearen lan-planaren beste helburuetako bat komunitate islamikoen eta euskal gizartea osatzen duten errealitate ezberdinen arteko elkarrekintza eta lankidetzara sustatzea da. Esparru horretan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin batera, kultura- eta erlijio-tradizio pluraleko gazteen arteko bizikidetzara-espereintzia eta balio partekatutak antolatzea aurreikusita zegoen. Ekimen hau uda honetan aktibatu da.

Joan den uztailaren 31n, Euskadiko gazte talde bat bost eguneko bizikidetzara abiatu zen, hiru lurralde historikoetan barrena. Bidaian kulturartekotasuna eta erlijioartekotasuna izan ziren nagusi, Euskal Herrian bizi diren eta bertakoak diren pertsona katoliko, ateo, agnostiko eta musulmanek osatzen baitzuten taldea.

Elkarrekin bizitzea eta bakoitzaren errealitatea partekatzea zen helburua, elkar ulertzeko, barneratzeko eta elkar onartzeko. 18 eta 25 urte bitarteko gazte horiek beren denbora partekatu zuten, zortzi jardueraren bidez taldeko pertsonak ezagutzeko benetako interesarekin.

tzarretan, lekukotasun hauek entzun ahal izan ziren: “Inoiz ez nintzen hain ondo sentitu pertsona desberdinekin” edo “bidaia honengatik ez bada, ez nuen inoiz beste pertsona batzuen errealitatea ulertuko”.

Bizikidetzaren amaiera gisa, taldeak mural bat egin zuen Murgian (Araba), esperientziaren oroigarri gisa balio dezan, gizarte gisa aurrera egiteko balio komunen garrantzia azpimarratuz. Parte-hartzaileek testu bat idatzi dute esperientzia hori deskribatzeko. Ondorio bat nabarmendu daiteke: esperientzia horrek agerian utzi du kultura- eta erlijio-desberdintasunak ez dira oztopo aniztasunaren eta bizikidetzaren balioak partekatzen badira.

ADOS Batzordeak oso balorazio positiboa egin du esperientzia horri buruz. Orain, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin batera aztertuko du nola partekatu, erantzun eta zabaldu ekimena.



Meskita bat ezagutu zuten (Donostia), Begoñako basilikako (Bilbo) kaperauekin bilera egin zuten, Jaizkibel, Pagasarri eta Gorbeia mendietan paseatu zuten edo jantoki sozial bat bisitatu zuten (Cáritas). Azkenik, Aspaldiko adinekoen egoitzara ere joan ziren, eta bisita horretan parte hartu zutenek esan zutenek, hunkitu egin zituen langileen eta erabiltzaileen maitasunak.

Parte hartu zuten gazteek esperientzia “bakartzat, beharrezkotzat” jo zuten, baita “nire bizitzako talde-espereintziarik onena” ere. Egindako gaueko ba-



OIONGO UDALAK ERRITU MUSULMANAREN ARABERA EHORZKETAK EGITEKO GUNE BAT PRESTATUKO DU



Oiongo udalerrriak erritu islamiarraren bidez ehorzketak ahalbidetzeko gune bat ere izango du bere hilerrian, eta, beraz, ez dute beste hilerri batzuetara joan beharrik izango.

Udalak kanposantuko Ordenantza eraberritu du, edozein pertsonak, erlijiosoa, agnostikoa edo ateoak izan, bertan lurperatua izateko duen eskubidea zehaztuz eta osasun betebeharrak bateratuak soilik ezarriz.

Hileta-zerbitzuak kontzientzia-askatasunaren printzipioek gidatu dituzte, eta pertsona guztien tratu-berdintasuna bermatzen dute, 'haien aukera espiritualak edozein dela ere, ehorzketak inolako diskriminaziorik gabe egin daitezkeen'.

ISLAM TXIKIA ETA IZEBA KAMILAREN KOBAZULOA

'Islam txikia eta izeba kamilarren kobazuloa' hurrentzako liburua da, Alejandra Loizagak idatzia eta Tamsir Ndoye gazte senegaldarrak ilustratua. Liburua euskaraz eta frantsesez dago eskuragarri, eta gaztelaniara itzultzeko zain dago.

2019an Harrera-Busturialdean hartutako Rifeko familia bati buruzkoa da liburua, eta gaur egun bere egoera administratiboa erregularizatzeko prozesuan dago. Islam 4 urteko neskatoren eta Tizila tximinoaren bizipenen bidez egindako ibilbidearen gogortasuna kontatzen du.

Ipuinaren helburua da, alde batetik, umeentzat errazagoa ulertaraztea migratzaileen eta errefuxiatuen egoera. Bestalde, liburuan zehar hainbat hitz nabarmendu dira, hala nola matriarkatua, hiyab, Ramadana, irakurtzen ari diren pertsonak gelditu eta hitz horiei buruz hausnartu dezaten.



ADOS Aholku Batzordea
Comisión Asesora ADOS
اللجنة الاستشارية أودوس

945 017 940
adosbatzordea@euskadi.eus
Navarra, 2 / 01007 Vitoria-Gasteiz

Euskadi, auzolana, bien común